

Izar naiz euzki, atsedean barik,
usain, argi ta doiñuz nastean,
gogora dakar zerua,
aren ederrez muiñea daula
osoan birloratua.

ARGI - SEMEA

«Ecce Virgo concipiet, et pariet Filium»
(Isai, 7, 14)

Ibaia

Jaunak zorion-baratz erdian
ipiñi ninduan samur.
Uretan sotil, zeru osoa
lepo-gaiñ dakart antzikur;
zoramenezko zugatz ezeak
biran ditut buru-makur,
otzikara ta eltxun dardarti,
zenbait nai nire oe ur.

Ostargia

Zur da mendian artzain gaztea,
zur itxastarra ontzian,
lilluraz doan ikuskizuna
izanik begi aurrean.
Euzki zarraren suzko moskola
ager orduko ur atzean
aurleri nator ni zeru-gangan,
soiñeko zuri-gorrian.

Larrosa

Eundaka liliz inguraturik
baratz-munean naukazu,
ogei urteko neskatxa iduri,
lirain, pertxeta, dizditsu;
illargiaren zidar-izpiak
morgil au dautzu lo-leku,
geldi ezin dan aize txoliñak
ekaitz orduan gordailu.

Lar ixioa

Gauza kaxkarra izanagaitik,
ba-dot naiko illarrain-zio.
Larra naz Oreb mendi-gerrian,
ta Goikoak nau ixio;
sua darist, ta kiskaldu barik;
Jaunari esker nakio...
Ta bardintsu, ni onan ikusiz,
Mois'ek be agur dagio.

Noe'ren kutxa

Uiol. Ur-giltzak ortzian eten:
lurrak dardar, gizona zurbil;
zezen antzera, orruz itxaso...
Au bai triskantza ta naspil!
Ni, orraitiño, ur apartsu zear,
itxaro-argia dingil,
bizidun oro suntsitu arren,
ez nintzan nastean murgil.

Mailiadia

Mailladi nozu, bardiñik eza,
urrezko laiño bitsean;
lurrean dodaz oin biak tinko;
burua barriz ortzean.

Gora ta bera dabiltz gotzonak,
Jauna dala gaillurrean.
Onen jakitun Jakob egin zan
bide ertzeko amesean.

Judit

Jaunak indartu eustan besoa,
Jaunak biotza dardartu;
eta gauerdi odoltsu baten,
arturik bere aolku,
Olopernes'i ezpataz neutson
samea sastaka moztu:
len otseiña zan erri maitea
betiko neban azkatu.

Isai igarlea

Mailladi, kutxa, lar, ostargi, ibai,
zer zarie, iduri ezik?
Sakon-sakona eritxi arren,
ez diñotzuet guzurrik:
Ama ta Birjiñ batera danak
—goi-alak eztau eziñik—
Argigandiko Argi-Semea
ara erraian sorturik.